

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA
Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Emandako laguntzei egindako ukoa onartzea, Zaramaga auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntzen deialdiaren esparruan. (Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen kaleko 62. zenbakiko jabeen erkidegoa)

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko uztailaren 24an egindako ohiko bilkuran:

Lehen. Onartzea Vitoria-Gasteizko Biasteri- Arabar Errioxako Taldearen kaleko 62. zenbakiko jabeen erkidegoak laguntzei aurkeztutako ukoa –zehazki Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko otsailaren 5eko eta 16ko zein maiatzaren 24ko eta uztailaren 19ko erabakien bidez jabeen erkidegoari eta bertan kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen emandako laguntzei egindakoak, hurrenez hurren–, eta amaitutzat ematea prozedura, jarraian aipatzen diren interesdunei dagokienez:

ESKATZAILEA	EMANDAKO LAGUNTZA (EUROTAN)
Biasteri-Arabar Errioxako Taldearen k., 62 (H01209006)	453.399,78
58026767K - Y1548065H	20.535,17
72750572P	13.538,26
72843152J	20.535,17
16295951Z	13.538,26

Bigarrena. Akordioa udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea, eta ohartaraztea ezen haren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, aldezturik aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik, bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko irailaren 3an

Alkate-lehendakaria
MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA